



BANDO/BANDOA

TOKIKO EKOIZLEEK NEKAZAL SOBERAKINAK OSASUN-BERMEZ SALTZEKO JARRAITU BEHARREKO NEURRIAK

Bando honetan jasotako neurriek helburu dute gutxieneko segurtasun-baldintzak bermatzea tokiko ekoizleen sasoiko nekazaritza-soberakinen noizbehinkako salmentan; normalean haien jabetzako baxeretan egiten direnak.

- Eskaerak **erabilera bakarreko poltsetan** emanen dira (ahal dela, biodegradagarriak), indarrean dauden higiene-eta segurtasun-neurriak betez. Ez erabili poltsa birziklagarriak, ez saskiak; eta ez banatu soltean entrega-puntuan.
- Bezero bati egindako salmenta amaitzean, saltzaileak **eskuak garbituko ditu** uraz eta xaboiak, edo alkoholez egindako likido desinfektatzailearekin. Halaber, ez tul edo doministiku egiten duen bakoitzean eta sudurra jo ondoren, gauza bera egiten du.
- Saihestuko da salmenta-gunean 3 erosle baino gehiago egotea, eta harrera egiten zaie banan-banan, bezeron artean **2 metroko distantzia** utziz, **inolako kontaktu fisikorik gabe**.
- **Arropa egunero garbitu eta desinfektatzea**. Ehunezko jantziak modu mekanikoan garbituko, 60 eta 90 ° arteko garbiketa-zikloetan.
- **Ekoizleak bakarrik manipulatu ahal izanen ditu elikagaiak**, eta horiek ezin izango dira erosleek eskura egon. Produktua ontziratuta gabe badago, eta bezeroengandik 2 metroko distantziara ez badago, beira-arasetan, plastikoan, kristalean, metakrilatoan edo higiena bermatzen duen beste edozein materialetan babestuta egon beharko da.
- Salmenta-postuaren **antolaketa**:
 - Gune bat, elikagaiak erakusteko.
 - Erakusmahai bat, jendeari harrera egiteko.
 - Gune bat, erakusketa-gunearen eta erakusmahaiaren artean, ekoizleak salmenta egitean erabiltzeko.
- Salmenta-egun bakoitzaren ondoren, lokala **garbitu** eta desinfektatuko da, bai eta banaketa-makinak, balantzak, erakusmahaiak eta, oro har, kutsatuta egon daitekeen ohol-tza edo azalera oro; ohiko produktu desinfektatzaileak erabiliko dira:
 - Disoluzio berria prestatu egun bakoitzean, gomendatutako kontzentrazioekin. Lixiba komertzialak erabiliz gero:
 - Lixiba komertziala, 50 g/l-koa: bota 25 ml lixiba, litro 1 uretan
 - Lixiba komertziala, 40 g/l-koa: bota 30 ml lixiba, litro 1 uretan
 - Lixibarik erabili ezin den ohol-tza edo azalaretan, etanola %70ean erabiliko da.

Puente la Reina/Gares, 2020ko apirilaren 22an

